

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua sare globalean lan egingo duenez (mugikorreko aplikazioan), baliabide fisikoetan, baliabide intelektualetan eta giza baliabideetan eta finantza-baliabideetan hurrengo gauzak hartuko ditugu kontuan horretarako:

Baliabide fisikoak: alokatuko ditugun motorrak (janaria eramateko modu zuzen eta bizkor batean gure bezeroei), makinak (ordenagailu onak, aplikazioa gartzeko eta partaideen artean eta gure funtsezko erlazioak dauzkagunekin komunikatzeko; izozkailu handi bat, ematen diguten janari guztia izozteko eta mantentzeko txarto jarri gabe), alokatuko ditugun establezimenduak (hauen barruan, izozkailuak eta janari guztia egongo dira; baita edukiko ditugun langileak), “enpresatokia” (toki honetan egongo gara partaide guztiok lan egiten eta enpresa kudeatzen).

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: taldekideen artean hainbat bertute dauzkagu pertsona gaude: Iñigo (informatika ikasketak ditu eta ordenagailuekin aditua da), Aimar (kostuekin eta planteamenduak egiten ona da; ADE ikasten ari da baita ere), Unai (taldearen zereginak banatzen ditu, agintari ona da, edozein sektoretan lan egin dezake eta taldea umore onez mantentzen du), Pello (oso zorrotza da eta aukera egokiena aukeratzen laguntzen ditu taldekideak) eta Julen (taldea bultzatzen du ahalik eta hoberen lan egiteko, “First” titulua du eta atzerriarekin hitz egin behar bada nahiko ondo hitz egin dezake edozein hizkuntza).

Finantza_baliabideak: hasieran enpresa aurrera ateratzeko gobernuak finantzatuko digun dirua %40a izango da, egingo dugun crowdfunding-a %40 eta bakoitzak bere diruaren parte bat jarriko du %20